



Allande Sokarros

Etxebarre (Zuberoa), 1957. Argazkilari lanetan abiatu zen ogibidean, kazetari bilakatu zen gero. Autodidakta. *Berrian* ari da, Frantziako nahiz Europako berriak lantzen ditu. Aspaldiko militante politikoa, IKn nahiz Ezker Berrin aritua. Etxebarreko -65 bizilagun dituen herrixka-hautetsia da 2001etik. Zuberoan abertzaletasuna finkatzea zaila dela erran digu: "Abertzale izateko modu bat baino gehiago dago, alta". Autonomia eraiki (*Autonomiae*) ekimeneko kidea da. Talde honek urriaren 26an eta 27an lehen foroa burutu du Baionan. Horren kariatara, honetaz eta hartaz aritu gara.

«Batasuna egitearekin, dogma bezala, ez naiz ados»

Zer da Autonomia eraiki ekimena?

Autonomiaren egitasmoa hitz batean. Berriro ere Euskal Herriko egoera politikoaren erdi-muinean kokatu nahi dugu autonomia gaia. Neure iritziz, ezkerreko abertzaletasunaren zati batean desbideratze gisako bat gertatu da une batez, departamenduaren bidean irristatzera heldu da abertzaleen parte bat, bidean argirik gabe.

Autonomia eraiki-n ari zaretenok nondik nora jo nahi duzue?

Ekimenean hainbat ikuspegi daude eta desberdintasunak onartzen ditugu. Batzuen ustez autonomiak ez du instituziorik aldarrikatu behar oraingoz. Askok Batera ekimenaren inguruan ibili gara eta ez dugu damurik horregatik.

Hainbat joeretako abertzaleak zarete...

Bai. Azken hamar urteetan bide desberdinak hartu ditugun abertzaleak,

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Gaizka Iroz

Departamenduaren eskakizunak ez zuela inora eramaten konturatu garenak. Bateran edo ABn ari direnek ere hori onartu dute. Gu autonomiaren alde izan gara beti, eta orain urrats finkoago bat ematea erabaki dugu. Autonomia eraiki ekimena eta autonomiaren aldarrikapena bultzatzen dugunok ez dugu Departamenduaren bidea tratu, bazter geratu gara edo bide hori egiten utzi dugu. Berriki Batasunak hartu du autonomiaren lema. Ondo da. Baina, funtsean, ekimenean ari garenok aspaldi hasi ginen autonomia kontzeptua lantzen.

Urriaren 26an eta 27an lehen foroa burutu duzue Baionan. Zein xedetan?

Autonomia kontzeptu instituzionala azaltzeko ekitaldia izan da. Kontzeptua sinesgarria eta bideragarria dela azaldu dugu. Nahiko frogar dago hori aldarrikatzeko. Autonomia gaur gaurkoz proiektu politiko bat da, ez hainbeste instituzio fisiko bat, egitura politiko bezala eraikitzeko proposamena.

Abertzaleen aldarrikapenak Batera plataforman bildu dira azken urteotan. Zu kritikoa izan zara. Sakondu horretan.

Jarrera nahikoa kritikoa agertu dut Baterari buruz, niretzat bertan indar asko xahutu baita eta ezer gutxi erdietsi. Hala ere, nahikunde horrek merezimendu osoa du, Baterari ez zaio aitzinatzeko nahikundeak ukatu behar. Nik *impasse* batera eramango gintuela esan nuen. Hori begi-bistakoa da, ez dut nik bakarrik esaten. Bidea ez da alferrikakoa izan, ados. Helburua jende gehienari instituzioaren beharra dagoela

ETXEBARREKO MILITANTE POLITIKOA ETA KAZETARIA

“Hemengo borrokabideen alde egoteak ez du ikuspegi nazionala ez dugula esan nahi”

Izena ezkutatzan duen kazetaria al da Allande Sokarros?
Bai, sarritan bai. Aurpegia agertzea ez dut maite.

Militante politiko bezala non kokatzen duzu zure burua?
Ipar Euskal Herriko esparru politikoan. Baina hemengo borroka-bideen alde tinko egoteak ez du ikuspegi nazionala ez dugula esan nahi, gure lehentasuna hemengo errealitateari lotua da.

Aspaldiko militantea...

Militantziak bizitza hartu dit. Ez dut deus ezkutatzeko. IKko militantea izan naiz. Agian, militante orokorragoak izan gara horregatik, alderdi politikoen jardueraren gainetik. Eta horrek ez du esan nahi, IKn denek ildo bera edo bakarra defendatu genuenik.

Ibilbide politiko aski bitxia duzu hala ere.

Bai. François Bayrou Departamenduko bozetan aurkeztu zen lehen aldian –Paue-ekialde kantonamendua– bere taldeko kidea izan nintzen, 1977an. Michel Labeguerie ezagutu eta Pau aldera eraman ninduen: “Badago gazte bat Zuberoan politikan

abiatu nahi dena, zentrista...” esan zion Bayrouri. Ez nekien holakoa nintzenik ere, nire burua ez nuen abertzaletzat alta. Politika maite nuen. Abertzaletasuna laster heldu zitzaidan. Hegoaldean, 1978an, Iruñean German Rodriguezen hilketa izan zelarik, argazki erreportaje bat egitera joan nintzen Hegoaldera eta ezagutzen ez nuen errealitate politikoarekin egin nuen topo. Hegoaldeko egoera politikoa ezagutzeak egin ninduen abertza-le. Ez naiz batere lotsa horretaz, ezta hori aitortzeaz ere.

Artzainak baina menditarragoa ote zara?

Bai. Laborari semea naiz. Etxebartarra. Pasadizo bat kontatuko dizut: Etxebarren, 1967 aldean, Enbata Legebiltzarreko hauteskundeetara aurkeztu zelarik, Kristian Etxaluzek eta Arño Egiapalek boz gehien bildu zuten. Bozen ehuneko 86. Etxebarren eskola publikoa ixteko zen eta Frantziako administrazioaren ergelkeriez baliatu ziren Enbatakoak nolabait. “Ez ditugu legezko baliabideak erabiltzen ahal” erran zuten eta mezu hori ondo ulertu etxebartarrek. Geroztik abertza-leek ez dute halako emaitzarik erdietsi.

ohartaraztea izan da. Alta, instituzioa erdiesteko ahal bezain bat jende behar dugula aldarrikatzea aitzakia makurra izan daiteke autonomiaren erdiesteko edota berau lortzeko bidea urratzeko.

Zer dago autonomiaren bidean bes-tean ez dagoena, adibidez?

Autonomia proiektu politikoa da, eskakizun zerrenda bat baino gehiago da, ez da errebindikazio katalogo bat.


Batera ez da abertzaleen munduan mugatua, Autonomia eraiki berriz?

Horretan nolabaiteko antzekotasuna daukagu Baterarekin. Herri honen errealitate soziopolitikotik abiatu behar dugu, horretan ados gara. Baina, autonomia –oraindik kontzeptu instituzionala da– eraikitzen joan behar den asmoa da, lan politikoaren bitartez. Bidez bide, anartean autonomia egitura edo instituzioa eraikitzeko sinesgarritasuna lortu behar dugu, eremu abertzale zabalagoa erdietsi.

Autonomia Iparraldera ere iritsiko al da?

Bai. Frantziak autonomia onartu beharko du edo Europar Batasunarik (EB) ez da egongo. EBk izugarritzko kontraesanetan ezartzen du Frantzia. EB ere ez dugu gogoko, merkatarien Europa ez dugu maite, baina euskaldunok instituzioa izango dugu, ez abertzaleena bakarrik, herri honen izaera politikoa aitortuko duen instituzioa.

“Lurraren eta etxebizitzaren espekulazioaren aurkako ekintzak daude izateko arrazoiak direlako, baina horien egiteko arrazoi politikoak azaldu behar dira argi eta garbi, ikuspegi politiko baten ardatzak defendatu behar dira, eta hori eskas da”.



Zuek Autonomia eraiki lantzen ari zarete eta AB udal hauteskundeak prestatzen. Bateragarriak al dira?

Bateragarriak dira baldin xede politikoak finkatzen badira. Hauteskundeetara eskakizun katalogo batekin joateak ez du luzaroko funtsik. Hauteskundeak ere borroka esparru dira niretzat, baina xede politikoekin aurkeztu behar da. Ez naiz ABn, eta noski, alderdien egituratik kanpo mintzo naiz, baina alderdiak hauteskunde denboran esnatzen direla dirudi. Ez da guztiz horrela, baina badu egia parte bat. Izan ere, zein da eguneroko ildo eta egitasmo politiko abertzalea? Ez dut garbi ikusten.

Hiriburuko auzapez Alain Iriartek gazteei herri kontseilueta ideiak defendatzera dei egin die ARGIAko orriotan.

Etxebarreko zinegotzia naiz. Frantziako egitura instituzionalean ibiltzeak, abertzale bezala, ezer gutxitarako balio duela ohartzen naiz. Marko horiek frantziarren egiturak atxikitzeke eginak dira, hautetsi edo auzapeza abertzale izateak ez du gauza handirik balio abertzaletasunaren aurreratzeko. Beren jarrera politikoa indartzeko baliatuko balute instituzioa, ongi, baina kasu gehienetan ez dute egiten. Hautetsi abertzaleak bere proiektu politikoa agertu behar du, baina ez du hori defendatzen. Egitura horiek ez dute abertzaleen xede politikoa azkartzeko balio.

Anartean, lurraren eta etxebizitzaren aurkako ekintza armatuak izan dira Zuberoan.

Legez kanpoko ekintza armatuak baldaude, lehenik eta behin, izateko arrazoiak daude. Inor ez da horretan gustuz sartzen. Ekin tzak daude izateko arrazoiak direlako, baina horien egiteko arrazoi politikoak azaldu behar dira argi eta garbi, ikuspegi politiko baten ardatzak defendatu behar dira, eta hori eskas da. Aktibismoak ez du balio hori gabe, indarrak galtzea da, bote-reak dituen ahaleen aitzinean galtzaile ateratzen zara. Irtenbideak eman behar dira ekintzekin batera, azalpen politikoen bitartez.

IKk burutzen zituen antzeko arrazoiengatik egindako ekintzak dira alta.

“Frantziak autonomia onartu beharko du edo

Europar Batasunarik

ez da egongo. EBk

izugarritzko kontraesanetan

ezartzen du Frantzia”

Bai. Baina ohartarazte gisako bat dira, aterabide nekeza dutena: lurra eta etxebizitzaren espekulazioa arazoa da beti. Beñat Espilek idatzia du: “Zuberoako espekulazioaren aurkako taldeak hiru urtez salatu du egoera, oihartzunik ez du ekarri hala ere. Aldiz, bi poxpolurekin bi etxe erre-tzeak ohartarazi du jendea”. Ez da guztiz horrela, baina arazo bat dagoela agerrarazi dute ekintzek.

Zer aldatu da Zuberoan azken hogeit urteetan?

Duela hogeit urteko eta egungo hautes-tsiak, frantses egituretan ari direnak, ez dira berdinak. Zuberoako esperien-tziak eta borrokak euskalduntasunaren aldeko giro bat ekarri du, ez du esan

nahi behar diren baliabideak ekarri dituztela. Herrien Elkargoak ez du bitarteko politikorik, adibidez, euskara-ren aldeko politika bultzatzeko. Lan egiten du, baina askoz gehiago behar da. Alegia, giroa aldekoa da, baina aldi berean ohartzen gara euskara duela hogeit urte baino kinka larriagoan dagoela. Karrikan gutxiago entzuten da. Ihardukitzerik gabe ez ditugu gure arazoak konponduko. Instituzioek ez dute arazoak gainditzeko eskuduntzarik, gogoetatzeko balio dute, hein batean, baina ez dute baliabiderik. Anartean zein da abertzaleon proiektu politikoa? Frantziako alderdi politikoe-k badute proiektu politikoa, abertzaleok ez. Antieuskaldunak lehen baino gutxiago dira, baina badira oraino ere.

Batasuna ohi da horretarako aldarri.

Abertzaleon batasuna, bai. Batasuna ondo dago. Baina zein helbururekin? Batasunak berez du interesik, batasu-nean ibili behar da, baina zertarako definituz. Hauteskundetara joateko bakarrik? Horretarako bakarrik bada, ez da aski. Batasuna egitearekin, dogma bezala, ez naiz ados. ■

aiko maiko

kamisetak, diseinua, arropa...

karmelo labaka, 4 - hernani

www.aiko-maiko.com